

Espediente mota: Administrazio kontratazioa. Prozedura irekia.

Kontratua: Bermeoko Udalak 2017rako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea.

Espediente zenbakia: 2016-71

KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO AKTA

1) **Bilkurari buruzko datuak**

- Bilkura eguna: 2016-12-22
- Ordua: 09:02
- Lekua: Intxausti kaleko batzar gelan.
- Kontratuaren xedea: Bermeoko Udalak 2017rako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea.
- Jardunbidea eta esleipen modua: Prozedura negoziatua.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: BAO/BOB-ean: 2016-11-16.

2) **Bertaratu diranak**

- . Mahaiburua: IRUNE ORMAETXEA LEGARRETA A^a
- . Mahaikideak:
 - JUAN CARLOS AGIRRE SANTAMARIA zinegotzi J^a
 - IDOIA PLATAS ARENAZA zinegotzi A^a
 - JON GOIKOLEA OJINAGA zinegotzi J^a
 - KARMELE MUÑO A ARRIGAIN A^a Jarduneango Udal Idazkaria.
 - EDURNE URRUTIA URIARTE A^a Udal Kontuhartzailea.
 - Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZEA ORMAZA J^a
- Beste batzuk:



- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Udal Kontuhartzailea dan Edurne Urrutia Uriarte andreak, gaiaren azalpena emoten dau, espedientearen nondik norakoak azalduz.

Laburbilduz, kontratazio honetara aurkeztu dan enpresa bakarra AON GIL Y CARVAJAL –A28109247- izan da. Aurkeztutako proposamenari buruzko bere txosten teknikoa aurkezten dau.

ERABAKIA:

Guzti honen aurrean, kontratazio mahaiaik zera erabaki dau aho batez:

Bermeoko Udalak 2017rako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratazioa AON GIL Y CARVAJAL –A28109247- enpresaren aldeko esleipen proposamena egitea.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 09:25etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK

Izenpea

IDAZKARIAK

izenpea



Edurne Urrutia Uriartek, Bermeoko Udaleko kontu hartzaileak, jarraian zehazten den gaiari buruz ematen dut honako

TXOSTEN PROPOSAMENA

Xedea

2017ko Aseguru Bitartekaritza Kontratua.

Nork Eskatuta:

Kontratazio Mahaia.

Aurrekariak

Lehena:2016ko azaroaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrak prozedura ireki bidezko lehiaketa hutsik deklaratu eban eta prozedura negoziaturako baldintza pleguak onartu eta deialdia zabaltzea onartu eban.

Bigarrena: Lau enpresatara helarazi da parte hartzeko gonbitea. Danak dagoz inskribatuta Eusko Jaurlaritzako kontratugileen datu basean eta gaitasuna daukie kontratua burutzeko.

Hirugarrena: Eskaintzak aurkezteko epea azaroaren 16tik abenduaren 17ra izan da eta epe horretan AON GIL Y CARVAJAL –A28109247- enpresak bakarrik aurkeztu dau bere eskaintza.

Laugarrena: 2016ko abenduaren 20ko dataz eskaintza hau ireki da eta baldintza pleguekin bat datorrela kreditatu da. Era berean, AON enpresak, kreditatuta utzi dau gitxienez hiru eskaintza eskatu ebazala aseguru mota bakoitzagaitik, gaitasun-dun aseguru etxeetara. Kasu guztietan ezinezkoa izan da hiru aseguru eskaintza aurkeztea, merkaturik ez dagoalako, kreditatu dan modura.

Bosgarrena: Negoziatzeko prozesuari hasiera emon eta kontaktuan jarrita AON enpresagaz, honeek ez daukiela kontratuko atalik espresuki negoziatzeko interesik adierazi deuskue. Beraz, negoziazio prozesua amaitutzat adierazi daiteke eta aurkeztuta dagoan eskaintza baloratu daiteke.

Argudioak





Lehena: AON GIL Y CARVAJAL enpresak aseguru etxeekin burututako negoziaketaren ondorioz, aurkeztu dauan "1.proposamena" egokiena dala agertu dabe. Proposamen horrek baldintza pleguak osorik betetzen dauz. Eskaintza bakarra izanik, puntuaketa altuena lortu dau atal guztietan.

Bigarrena: Kontratazio mahaiari jagoko esleipen proposamena burutzea.

Proposamena:

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, **ondorengoa proposatzen jako Kontratazio Mahaiari:**

Lehena: 2017rako aseguru bitartekaritza kontratua AON GIL Y CARVAJAL – A28109247- enpresari esleitzea, aurkeztu dauan "1.proposamena" izanik abantaila handieneko proposamena, eta eskainitako hobekuntza guztiak barne.

Bigarrena: Esleipena burutu aurretik, behin betiko bermea aurkeztu beharko dau esleipendunak.

Hirugarrena: Esleipen erabakiaren iragarkia argitaratuko da EBAOn/DOUEn eta EAOn/BOEn.

Bermeon, 2016ko abenduaren 20an

Edurne Urrutia Uriarte
Kontu hartzailea

